

Hozkailuan

post-it bat

Maddi Aiestaran Iparragirre



Hozkailuan *post-it* bat

Maddi Aiestaran Iparragirre

Julene Azpeitia 35. ipuin lehiaketa

2022

Lehen saria

2022ko azaroan digitalizatutako ipuina.

© Maddi Aiestaran Iparragirre (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Jende berriarekin sozializatzeko beharra aipatu zizun, eta irakurle-talde batean apuntatu zinen. Liburu ezberdin bat irakurriko zenutela hilabetero esan zizuten, eta hilean behingo ostiral arratsaldeko saioetan erabakiko zenutela hurrena zein liburu irakurri nahi zenuten. Hasieran ez zenekien oso ondo hilean behingo saio horiek zer izango ote ziren. Beldur pixka bat ematen zizuten. Baina apuntatu egin zinen, ziur jende jatorra joango dela. Apuntatu egin zinen eta hozkailuan *post-it* bat pegatu zenuen: "urriak 14, seietan kultur etxean".

Esnatu nahiak ez zizun utzi batere ondo deskantsatzen. Tripak nahastuta zenezkan; oso aspaldi sentitu gabeko nerbio-zera bat sumatzen zenuen. Amets egin zenuen gau hartan. Akordatu zinen garai bateko zu-arekin, eta permititu zenion zure gorputzari senti zezala libre eta lasai ilusioa. Konturatu zinen on egiten diola minari ilusioak; ez zitzaizun kopetarik zimurtu sei orduan. Eguna hasteko zain pasa zenuen gaua; are, egun berri bat baino, bizitza berri bat hasteko zain egin zenuen amets. Eta harrotasuna eragiten zizun erabaki hura hartzeko kapaz izan izanak: bizi egin nahi dut hil aurretik. Garmendiatarreneko oilarra entzun zenuen urrutian, eta iruditu zitzaizun momentua zela sukalderako bidea hartzeko.

Motel apartatu zenuen manta zure gorputz urduriaren gainetik, eta ohe ertzean eseri zinen. Bertantxe zenezkan eta banan bana jantzi zenituen etxeko zapatilak: ezkerreko oina orain, eta eskuinekoa segidan. Bi eskuak ohe gainean jarrita tentetu zinen. Hiru pauso geldo eman zenituen, eta etxeko batari tira egin zenion pertxatik, erori arte. Gerrikoari korapiloa egiten zenion bitartean, leihora zuzendu zinen astiro, eta pertsiana igo zenuen pixka bat. Goizetik goizera gehixeago kostatzen zitzaizun pertsiana goraino eramatea, baina indartsu esnatu zinen eta ez zenuen horretan pentsatu. Euria ari zuen kanpoan; bakea ari zuen barruan. Leihotik begira geratu zinen hiru minutuz, larreek eskertuko dute. Egun on esan zenion aurpegierarekin pareko etxeko Mirentxuri, eta kortina itxi zenuen. Jiratu eta, ispiluari begirik erakutsi gabe, sukaldera egin zenuen.

Irratia pizteko botoia sakatu zenuen, eta bolumena igo zenion pixka bat: bizilagunen gaua errespetatu behar omen da; goiza ez hainbeste. *Faktoriako* esatariak esnarazitakoan, kafea egiten jarri zenuen: telebistaren azpiko bigarren

kaxoitik kafe-paketea hartu, pintza kendu, kafea, ura bota, kafetera ondo-ondo itxi, eta sua piztu. Bere tokira bueltatu zenuen kafe-paketea eta balkoiko atea zabaldu zenuen. Freskura pixka bat egiten du, baina ondo. Zarata gehixeago sartzen zen orduan sukaldera. Hozkailuaren aldamenean gordetzen zenuen plastikozko ur-botila zaharraren bila joan zinen. Gerria makurtuta jaso zenuen lurretik, eta harraskara bidean ikusi zenuen *post-it*-a berriz: "urriak 14, seieta kultur-etxean". Irribarretxo egin zenuen, baina ez zitzaizun ezpainik mugitu; urteak ziren begiekin baino ez zenuela egiten irribarre. Botila betetakoan, balkoira itzuli zinen eta geranioak ureztatu zenituen; loreontzi bat, eta gero beste bat. Atzera harraskara bueltatu, urez bete, eta beste loreontzi batera. Eta berriz atzera. Eta berriz balkoira. Mahaiaren gainean utzi zenuen ur-botila, berriz makurtu beharrik ez izateko. Telebistaren pareko egurrezko aulkian eserita gelditu zinen, zain.

Kafetera zarataka hasi zenean, aulkitik altxatu zinen eta sua itzali zenuen. Lurra eskoba zenezakeela okurritu zitzaizun; aurreko iluntzean garbitu zenuen, baina bueno: zerbait egin behar dut kafea pixka bat hozten den bitartean. Eskoba eta pala beren txokora bueltatu eta kafe bila gerturatu zinen; bero zegoen oraindik. Harraska gaineko apaletik katilu bat hartu eta kafez bete zenuen. Azukre potoa mahaiaren zegoen ordurako, eta bi koilarakada bota zenizkion kafe hutsari. Irratian albistegia, berriro. Eta kanpaiak, harekin batera.

Tardatu egin zenuen katilukada hura bukatzen, erre egiten zuen kafeak. Baina ez zuen inporta, ez zeneukan presarik; inoiz ez zeneukan ezertarako presarik. Hiltzeko baino ez. Eta egun hura berezia zen, egun hartan hiltzerik ere ez zenuen desio; bizi egin nahi zenuela erabaki zenuen, eta hura zen eguna horretan hasteko.

Katilua harraskara eraman eta hozkailuko goiko apaleko txokolate tabletari heldu zenion: ontza bat hautsi, eta bere lekuan gorde zenuen berriz. Egutegia zeneukan pare-parean, urriak hamalau: Kontxiren urtebetetze eguna. Burua jiratu zenuen, zortziak eta hamar, geroxeago hots egingo diot. Balkoira atera zinen, eta besaulkian eseri. Jendea pasatzen zen balkoipetik, agur esaten zenien batzuei, besteek ez zizuten begiratzen, beste batzuei ez zenien agur esan nahi. Manta fin batek estaltzen zizkizun belaunak. Irrati-esatariak entzuten zenituen oraindik. Kotxe-hotsak molestatu egiten zizun; eskerrak kotxe gutxi ibiltzen zen herrian. Euria ari zuen balkoiaz bestalde; bakea ematen zizun horrek.

Freskura doministiku bihurtu zenean, sukaldera sartu zinen. Izozkailutik duela astebete egindako garbantzuko *tupper*-a atera zenuen desizoztu zedin, eta, sukaldekoak eginda, salara. Sofako betiko aldean eseri zinen, eta aldameneko mahaitxoan topatu zenuen liburua. Heldu egin zenion goxo, eta enegarren aldiz ahoskatu zenuen: *Haize-lekuak*, Amaia Telleria. Sekula ez zenuen libururik euskaraz irakurri. Sekula ez zenuen ia ezer irakurri, egunkariko zerbaitekin eta umetan eskolan derrigortutako lau testutxo izan ezik. Horregatik sortzen zizun hunkidura; lehenengoa zen hainbeste urtetan, eta gustatu egin zitzaizun. Beldurra ematen zizun talde horretan apuntatu eta libururik irakurri gabe joateak. Pentsatzen zenuen hasiko zinela irakurtzen eta ez zenuela segitzeko indarrik izango. Baina ez zen halakorik pasa: irakurri zenuen, ulertu zenuen eta gustatu egin zitzaizun. Ze ederra azaleko neskatila. Liburua ireki zenuen, eta lehenengo orrialdean irakurri zenuen beste behin: "Haize-lekuak maite-leku bihur ditzakegu elkarrekin; maite zaitut, ama. Aintzane". *Cursi*-a, gero. Berak oparitu zizun liburua. On egingo dizu irakurtzeak, on egingo dizu jende berriarekin sozializatzeko, esan zizun, eta noski, zioena egia zela sinetsi zenuen zuk. Eta egia izango zen seguruenik. Liburua oparitu zizun momentuarekin akordatu zinen, eta liburua itxi zenuen segidan. Nik ere maite zaitut esan nahi izan zenion, eta inoiz ez zenion esan. Baina bazekiela pentsatu zenuen, beti pentsatu zenuen hala. Magalean etzan zenuen liburua eta hankak luzatu zenituen. Sofaren zirrikitutik telebistako mandoa atera eta pantaila seinalatu zenuen: Teledeporte.

Lo hartzen zenuen, eta esnatu, eta lo hartu, eta esnatu. Horretarako tokia zen sofa. Pasatuko ziren sukaldean hiru albistegi eta ia desizoztuta egongo ziren garbantzuak. Liburua mahaitxoaren gainean utzi, eta altxatu egin zinen. Euria ere atertu zen ordurako. Hamabiak eta hogeita bost. Ai, ohea. Logelaraino ibili zinen mantso. Urteak ziren ohea alde bakarretik desegiten zela gauetan. Zure aldeko manta zatiri tira egin eta txukun-txukun jantzi zenuen ohea. Pasillo luzean barrena sukaldera abiatu zinen, eta bide erdian akordatu zinen Kontxirekin. Jiratu, eta telefonora jo zenuen. Seis siete dos, siete ocho ocho, nueve dos tres: "Kontxi, urte askotarako! Zer moduz habil? Bai, gu ere hala, egoten ta irauten, minik ez zeukanagu ia, baina indarrik ere gutxi. Hala dun, bai, talde horietako batean apuntatu naun, alabak esan zidan mesede egingo didala eta ea ba, esango dinat zer nola moldatzen garen. Ez pentsa, printzipioz erraza esango niken, nahiko irakurtzeko modukoa egin zaidan, gure garaiko kontuak-eta kontatzen dizkin. Bai,

hori dun, neskame ibilerak-eta. Bai, bai, gustatu zaidan. Ondo ba, ondo ospatu zan hik eguna, hitz egingo dinagu, bai, agur."

Telefonoa eskegi zenuen, eta sukaldera bidean zure barreneko mamu-erretxinari entzungor egin zenion. Ez zenuen inoiz jasan Kontxiren etengabe-zoriontsu-dela-adierazi-behar hori, desesperatu egiten zintuen. Horregatik erabaki zenuen egun batean gehiago berarekin kaferik ez hartzea. Nekatu egin zinen astelehenero-astelehenero antzerkia egiteaz; tarteka telefonoz antzeztea nahikoa zen.

Sukaldean, aurreko gauean sobratutako pare bat kroketa eta Martini botila atera zenituen hozkailutik. Zartagina olio z blaitu eta sua piztu zenuen. Edari gorria igandeetako baso txikira isuri zenuen gero. Ez zen edozein egun: auskalo noiztik lehenengoz, medikutarako ez zen norabait irteteko plana zeneukan arratserako. Sua berotutakoan, bi krocketak oliotara bota zenituen, eta sardexkarekin bueltak eta bueltak emanez, itxaron. Kolorez ilundu zirenean, plateran kokatu, sua itzali, eta edalontzia eta platera hartuta atera zinen berriro balkoiko besaulkira.

Izango ziren zortzi bat urte eguerdiko marianittoa balkoian hartzen ez zenuela. Lehen bai, lehen asteburuero-asteburuero irteten zineten biok balkoira, eta tertulian pasatzen zenuten denbora. Elkarrekin egoteko momentua izaten zen. Berari ez zenion inoiz esan, baina horregatik zenuen horren gustuko momentu hori. Beti iruditu zitzaizun indargarria eguzkiaren goxoan marianito bat hartzea. Baina indarra norentzat, gertuko nor denak hil eta gero.

Magalean hartu zenuen trapu bat, eta gainean platera. Esku batekin heltzen zenion edalontziari, eta bestearekin krocketari. Eta kosk. Ez zinen aspaldi horrela sentitu: lasai zeunden minez eta urduri irrikaz. Zerura begira egon zinen pixka batean. Lagunekin akordatzen zinen zerura begiratzen zenuenean. Lehenago sinesten zenuen hor nonbait ibiliko zirela igual, baina honezkero hori ere ez. Besterik gabe, lurpera begiratzea baino errazagoa zen zerura begiratzea, eta gainera, presentago zeneukan zerua lurpea baino. Horregatik akordatzen zinen hildakoekin. Topa zuen alde. Eta azken tragoa.

"Arratsaldeko hirurak dira" esan zuten irratian, eta altxatzea erabaki zenuen. Garbantzu *tupper*-a zabaldu eta pare bat burrunzalikada banatu zenituen platerera. Mikrouhin-labean sartu zenuen platera, eta bi minuturako programatu. Begira pasa zenituen bi minutu. Gero, bezperan erabilitako edalontzia urez bete zenuen iturrian, eta mahaiaren ertzean eseri zinen garbantzu berotuak koilararekin

nahasten zenituen bitartean. Musika ari zuen irratian: Ennio Morricone eta Sergio Leone. Lideri gustatuko litzaioke hau. Hasperen bat: non ibiliko ote da hori. Eta garbantzuak tragatzen segitu zenuen.

Bukatu zenuenean, harraskan utzi zenuen plater zikina. Kroketak egiteko erabilitako zartagina jarri zenuen sutan, eta olio zaharrera bi hirugihar puska jaurti zenituen. Bezperako ogi-mutur bat zegoen mahaiaren gainean, eta hirugiharezko pintxo txiki bat egin zenuen. Gauetz izan zenuen urduritasuna sentitzen zenuen berriz etortzen. Gerturatzan ari zen etxetik ateratzeko momentua.

Zortzi urtez isilik bizi izan zen etxea hitzez, eta bizitzaz ere bai. Etxean bakarrik geratu zinenetik, kalean bakarrik geratu zinen pixkanaka. Askotan esaten zenuen "nire lagunak baino lehen hil nahi dut", eta ez zen hala gertatu. Hileta-elizkizun bat eta beste bat eta beste bat. Eta hil-kanpai bakoitzeko isiltasun gehiago. Aspaldi eliz atarian ere ez zinen inorekin hizketan geratzen: adin honetan zertarako egin lagun gehiago, hiltzen direnean negar egiteko... Gazteagotan uste zenuen iristen zela bizitzan puntu bat, non ohitu egiten den bat inguruko heriotzera, eta uste zenuen, hortaz, noizbait arrazoi horregatik negar egiteari utziko zeniola. Baina ez zitzaizun hala pasatzen; eta puntu horretara aspaldi heldu zinen. Mahaiko ogi-papurak bildu zenituen eskuarekin, eta zakarretara bota zenituen. Burua garbitu behar zenukeela pentsatu zenuen, baina berandutu egingo zitzaizun hala eginez gero, eta pixka bat orraztuta nahikoa izango zela erabaki zenuen. Ahaztuta zeneukan zer zen lehenengo-aldian-inpresio-ona-eman-behar hura. Ez zenuen inoiz jakin "inpresio ona" zergatik zen ilea eta zapatak garbiak izatea, baina beti bete zenuen *arau* hori. Ur-txorrota ireki zenuen, eta platera, edalontzia, koilara, katilua, zartagina xaboitu zenituen. Berriz uretatik pasa, eta beren lekuan kokatu. Trapu busti bat pasa zenuen mahaiaren gainean lehenengo, eta bitrozeramikaren inguruan gero. Sukaldea txukun-txukun utzita, logelara joan zinen. Armairua ireki eta lehenengo begiradan erabaki zenuen ze arropa jantzi behar zenuen: bazkari eta egun berezietan janzten zenuen betiko berbera. Bere pertxatik atera zenuen suabe, eta ohearen gainean etzan zenuen jantzia. Etxeko zapatilak erantzi zenituen, eta bata, eta kamisoiak. Ispiluak bizkarrera begiratzen zizun; bizkarrak ispiluari ez. Ez zenuen maite ispilua. Dotore-dotore jantzi zenituen ohe-gainekoak. Zapatak janzteko ohean eseri zinen, eta kostatu egin zitzaizun oinak eroso egokitzea. Dirdiratsu zeuden, gogor bezainbeste. Zutik jarri zinen zure islari begirik jaso gabe, eta komunera abiatu

zinen. Han gordetzen zenituen belarritako zahar batzuk ipini zenituen belarrietatik zintzilik, eta ilea orraztu zenuen. Krema hidratatzailea zabaldu zenuen aurpegian, eta koloniaren pare bat *fris-fris* lepo ertzean.

Ez zenion aitortu nahi zeure buruari, baina bazenekien eder zeundela. Barrura begiratzea zen ispilura begiratzea zuretzat. Azkeneko urteetan sekula ez zenion begirik erakutsi, egirik ez erakusteko berak zuri. Grisa zen egia: "bakarrik hago bizitzan, hire alabek ere ez dinatete kasurik egiten, etxean pasatzen ditun egunak eta gauak, eta honezkero ez haiz zulo beltz honetatik aterako". Egia zein zen bazenekielako ez zenuen inork egirik aurpegiatzerik nahi. Baina egun hartan beste bat zen egia. Hasperen egin zenuen, gorputza jiratu, eta zortzi urtean lehendabiziko aldiz, zeure buruari begiratu zenion begietara.

Bostetako kanpaiak. Komuneko argia itzali, eta salako mahaitxotik liburua jaso zenuen. Etxeko giltzekin batera poltsoan sartu, irratia itzali eta, eskailerak igarotzen dituen pasilloan zehar joanda, igogailura iritsi zinen. Botoiari eman zenion eta atzera egin zenituen zazpi pauso: giltzaz itxi zenuen etxeko atea. Igogailu barrenera sartu zinenean, gorputza jiratzeko bulkadari uko egin eta fuerte heldu zenion poltsoari, pozik nagoela uste dut. Ezpainak alde banatara ireki zitzaizkizun, eta lasai utzi zenien hala joaten, ez nau inork ikusten.

Portaletik berrehun metrora zegoen autobus geltokia. Mutil gazte bat zegoen pantailatxo bati begira. Oso urduri zeunden ordurako, eta espero baino pare bat minutu beranduago iritsi zen autobusa; mutikoari hamar bat aldiz galdetu zenion begiradarekin ba ote zetorren autobusa edo zer. Lehen lerroko leihoaren aldeko eserlekuan eseri zinen. Liburuan irakurritakoen errepasoa egin zenuen ibilbideak irauten zuen sei minutuetan, eta irteterakoan "egun ona izan" esan zenion gidariari. Harrituta zeunden zure buruarekin. Txaketaren kreamailera lotu zenuen eta kultur etxearen pareko kafetegian eseri zinen mahai huts batean: "ebaki bat, mesedez".

Iristen ari zen jendea. Antzematen zenuen zein zihoan irakurle taldera eta zein ez. Zalantza egin zenuen zuri buruz zer pentsatuko ote zuten besteek, euren taldera zindoazela edo ezetz. Badaezpada ez zenuen barrako Diario Vasco-rik zure mahaira ekarri; lehenengo inpresiorako, hori ere. Euren aldameneko herrikoa zinen, baina zuk baino hamar, hogei, hogeita hamar urte gutxiago izango zituzten

hara iristen ari ziren gehienek. Ez zenuen inor ezagutzen. Barrena betetzen zizun ilusio bizigarri hura ere ez.

Hiru andrearen atzetik abiatu zinen eskaileretan gora. Beraien ondoan eseri zinen mahaiaren bueltan. Eta atzetik etorri ziren gizon bat, hiru gazte, beste gizon bat, bi andre... Liburua ateratzen zuten poltsotik denek; gauza bera egin zenuen zuk. Eta bati eta besteari begira ari zinela, konturatzeko hasi zen tertulia: gustatu al zaizue, zerk harritu zaituzte gehien, idazkerari buruz zer, erraz irakurtzen dela, ezta?, protagonistaren ez-dakit-zer, zer sentiarazi dizue honek...

Ahots denak dinamizatzen zituen pertsona bat zegoen, tarteka gauzak apuntatzen zituena koadernoan. Besteren batzuk ere joan ziren koadernoarekin; ezin zenuen imajinatu zer idazten zuten, zuk nahikoa zeneukan entzundako dena ulertzen saiatzearekin. Jende adituak bezala hitz egiten zuten askok, adi-adi erreparatzen zenien. Zure alboan eserita zegoen adineko andreak hitza hartu zuenean, hunkitu bezala egin zinen. Gaztea zela neskame joan zela Bilbora, eta liburuan irakurritakoek orduko garaietara eraman zutela. Aho-zabalik geratu zinen zu; sekula ez zenuen inor bere neskame-garaiez hain patxadatsu hizketan aditu. Gustatu egin zitzaizun, on egin zizun pixka bat. Horrekin ulertu zenuen irakurle-taldearena gehixeago: tokia dela irakurtzeko, kontu literarioak mahaigaineratzeko, idazkera estiloez eztabaidatzeko, baina tokia dela batez ere kide bakoitzak egindako irakurraldi diferenteei ahotsa jartzeko. Eta kontatzeko nora eraman duen pasarte berberak irakurle bakoitza, eta konturatzeko ze aberasgarria den konpartitzea; konpartitzea irakurraldiak, eta konpartitzea begiradak, kafeak, autobusak, iritziak, arratsaldeak eta eguerdiak. Ez zenuen ordu eta erdian hitzik egin, baina barrua beteta abiatu zinen eskaileretan behera. Bidean, zure ondoko andrearekin hasi zinen hizketan. Kontatu zenion zu ere joan zinela neskame eta ez zinela inoiz inori hari buruz ezer kontatzera atrebitu, gogorra izan zela oso. Eta a bai? Erantzun zizun, hitz egin nahi al dun lehenengoz? Aterako dinat kafe bat.

Ebaki bana hartu zenuten eta ordubeteren buruan, joan beharra zeukala esan zizun. Agur, datorren hileraren arte. Bakarrik geratu zinen kafetegiko mahaietan. Bakarrik, baina gustura zeundela sentitu zenuen, topatu zenuela toki bat inportante sentitu ahalko zinena, hilabetean behin gutxienez. Ez zeundela bakarrik sentitu zenuen, zortzi urtean lehenengoz. Ze aberasgarria den konpartitzea. Mugikorra atera zenuen eta markatu: Aintzane. Bazenekien ez zizula hartuko,

baina ahots-mezu bat utzi zenion: "Eskerrik asko, Aintzane. Arrazoa zeneukan, biziberritu egin nau irakurle taldearenak. Ez dakit zenbat iraungo didan, baina oso pozik nago gaur. Nahi duzuenean etorri etxera bazkaritara". Mugikor xaharraren pantailari begira geratu zinen, zalantzan bezala, baina baietz erabaki zenuen: "Kaixo, Lide. Ez dakit non zabiltzan, baina ondo nagoela esan nahi nizun. Etxetik ateratzen hasi naiz berriz, eta oso pozik nago gaur. Zu ere ondo ibiliko zarela pentsatu nahi dut. Badakit aspaldi ez garela egon, baina nahi duzunean etorri bazkaritara, bai? Badaukat gogoaz zu ikusteko". Mugikorra poltsora itzuli zenuen eta autobus geltokira abiatu zinen.

Hunkitu egin zinen mezu horiek grabatzean. Ze gutxi behar dudan eta hori ere ez. Baina aspaldi etsi zenuen alabokin. Egun hartan ausarta izan zinen, bizitza erabaki zenuen laurogeita hamalau urterekin. Zeure buruari indarra sentiaraztea lortu zenuen. Marianitza hartzera balkoira itzuli zinen. Ispiluko islari begiratu zenion begietara. Irribarre egin zenuen ezpaineekin. Kalera atera zinen. Jende berriarekin sozializatu zenuen. Eta neskame garaietako gorabeherak kontatu zenizkion lagun berri bati. Poltsoari fuertea helduta zindoazen etxera, harro. Zebra-bidea igarotzen hasi zinen eta "kontuz!" entzun zen tabernatik. Burua jiratu zenuen arriskua non zen ikusteko, eta beranduegi zen. Kotxe-gidariak burura jaso zituen eskuak. Tabernako bezeroek larrialdietara deitu zuten. Beste kotxeetako gidariak kamino bazterrean geratzen ziren, eta laguntzera gerturatu. Txakur bat zaunkaka hasi zen. Bederatzietako kanpaiak ere bai. Eta zebra-bideko marra zuri baten gainean zabaltzen ari zen odol-putzura erori ziren lehenengo euri-tantak. Lurrean etzanda geratu zinen. Euria hasi zuen zarra-zarra. Bakean egin zenuen irribarre, zapora ona dauka euriak. Autobusa puntual iritsi zen, baina ordurako ez zeneukan presarik.

Ez dakit *post-it* hori zakarretara bota behar nukeen edo ez. Hortxe utziko dut seguruenik. Zuri begiratu nahi dizudanean, hozkailuari begiratuko diot horrela: errazagoa da hozkailuari begiratzea zeruari begiratzea baino, eta gainera, presenteago izango dut hozkailua zerua baino, kanpoan euria ari duenean.

Iritsi da. Prest dauzkat bi marianito sukaldeko mahaiaren gainean. Aita hil zenetik ez dugu elkar ikusi. Erraz esaten da, zortzi urte. Pasilloaren alde banatan gaude elkarri begira: alaba fina eta alaba aldrebasa, biok negarrez. Besarkatu egin nau,

ez nuen espero. Baina eskertu diot. Sukaldeko mahaiaren gainetik edalontzi bana hartu dugu, eta begiekin seinalatu diot hozkailuko *post-it*-a. Topa zure alde, ama.